


KEREXETA'TAR JAIME
«ARANTZIBIA»

BITARGI

13033

L V / 75



Euskal Biblioteka Labayru



1012082
LITERATURA / N. 1797

OLERKIAK

BITARGI

BITARGI

KEREXETA'TAR JAIME

«ARANTZIBIA»

NIHIL OBSTAT
Gregorius de Maidagan,
Censor

IMPRIMATUR
Paulus, Episcopus Flaviobrigensis
Bilbao, 3 Novembris 1959

Depósito Legal.- S. S. 333. 1960

Jabea dau
Copyright

OPARI:
EUSKAL-GAZTEDIARI

ITZAUREA

AITA ONAINDIA'K

ITZAURREA

Olerkirako ez dogu gaur, zenbaiteren eretziz, olako giro berebizikorik; beste zenbat auzi ta jardunek erakarten gaitu leia eutsi-eziñen ta alabearrez ezik, nekez orri erantzi; ots, goira so egiñik, zeru-min, sai antzera ibilli bearrean, lur-azal-zale bizi gara geienik.

Gizasemea, adimen ta naimen jaube da. Ta zernaitara jokutzen dau, almen biok erabilli ta alkar joaz. Jainkoak ludi onetan, ezker-eskuma, ereindako gaiak azterkatu ta irauliz jakituri-sailletan gero ta argi mardulagoa damosku. Ortik sortzen izan, ludi, giza, oitura, gogai-jakintza ta onakoak. Gaur, adibidez, izadi-jakintzan txit aurreratuak gabiltz; gai-aro dirditsuan bizi gara. Errazoizko ta eder gauzetan, ostera, ez goaz orren aitzindari.

Baiña ba-dira gaur gizakumeak, naiz-ta bakan, gizarteko milla zalekeri, joera ta griñari uko egiñaz, adimen eta barne-bizitarako girotan bizi diranak, santu ta olerkariak baitik bat. Oraingo abarrots, baraila ta zalapart artean be, Jainko-zale ta goibizi irritsez dabiltzanak asko ditugu ingurumari; bai ta Egi, On ta Eder, iru doai bikaiñok kiriotsu maite dabezan gizaseme autatuak be ba-dira gaurko mundu gaike-zale onetan; au da, olerkari ta edertzaleak guk uste baiño geiago doguz auzoan.

Olerkaria geienik ederrak darabil; ta ederra lenen

izadian daukigu, Jainkoak bere esku gurenez asieran ereinda. Idazti deunak dirausku, Jaungoikoak, egiñak oro, sortuta ara, eder aurkitu zitula. Jon Gurutzeokoak poliki:

"Milla edergarri isuriz
leiaka igaro zan zugatz ibar otatik;
ta begira zijoala,
erraiñu utsarekin,
bere edertasunez utzi zitun jantzirik".

Iñoz, alan be, naste-zaleak galdetu oi dabe: Izadiko gauzak berenez dira eder, ala geure ezagueraz edertzen ete? Ona Orixe jaunak gizonki erantzuna: "Jainkoagan, egitea, begiratzea ta arkitzea bat dira; baiña guregan, giza-izkuntzan, egitea lenik eta arkitzea urrenik. Berenez ere, Jainkoaren aztarrena ta urruti samarreko antza bai-dute, eder zira-la esan bear gizonak, ikusi baiño len. Dana dala: gauzetan beretan eduz, ots, lore bezala ez ba'lego ere, oiñarri bezala edo azi bezala ba-dago beintzat eder ori. Naiz Jainkoaren ezaguerak naiz gureak azi ori loratu bear ta ere, sorkaiak eder diranik ezin ukatu. Nik uste, azkenik, gauzak berak dirala eder." (**Euzko-Gogoa**, 1950, 11-12 zenbak.).

Gizonak emen be azeri-lana dagi, dana traskildu. Bere arrokeri, kezka, ardura larregi ta gogo gazitox edozer lausotu daroa, itsusi biur; eta mundua, len zein orain, berenez eder sotilla doguna, ez yako orrela agertzen, iguingarri baiño. Ez munduak ez bi-ziak, ez dabe ederrik poz-atsegiña lekarkeonik. Au dala-ta, giza-biotzik asko —bai ta utirik asko be—

illun ta murriz dakusguz, laiño zatarrez gaiñezka, ta Egilleakerein-ederra billois ta garden, ezin inundik be ikustatu.

Baiña itxi daigun apur baten uriko zarata ta igi-bearra. Begiak goi, zabal egoak, so zero izartura; edo zatoz itxas-aldera, goazen mendirantz. Emen bai jori eder-aztarrena! Or, mendira zoiazala, solo ta zelai ta zugatz ta aitz-bizkarrak, eguzkiaren inar sotillez, bitxi-urrez, ñirñirka; baserritxoak, noizka, zuri-uridin; txoriak kantuz, egaz erroiak... Ez ete ederrik? Baiña, igon oraindik gorago, mendi-gaillurre-raino; ta mendean daukazu ikuskizunik birloragarriena: izadiak damotzun ederrez ase yatzuz biotz-begiak. Or ez dozu ezer zaputz, berekoi, griñati; eder ta atseden-zale ba'ziñan be, ba-dozu or asegai naiko.

Begira erabat munduko gauzak; ez azalez soilki, ez okerreko muiño gaiñetik, ez griña-lauso artetik, amor onez ta artezean baiño. Orrela ba'zengi, gauzen barren-lezaraño jatsiko ziñakez —bai ta zeure gogo-osiñera be—, ta bertako ederra, mee ta bigun, oso-osorik txastatu. Egoki, beraz, Toma deunak: "Ikusiz atsegiña dakarskuen gauzak, orrexeik dira eder".

Bai ta gizonak ba-dau bere arima, Jainkoak emona, almen bikaiñez ornidua: ezagumen, adimen, irudimen, asmamen. Onein bitartez gizonak ederra asmatu ta egin daroa; au da, eder-lanetan bere barruko atal bat, bere arimaren zerbat, ederra noski, azaldu ta itsatsi oi dau. Eta gizonak antze-lan askotan agertzen dau bere arimaren edertasuna: etxe-giñak eta gizirudigiñak, naiz-ta beerengo maillan,

mukulu bidez; margolariak oigean, kolore bitartez; musikariak ereskez ta izlariak mintzoz. Eder-erraiñuak dizdiz dagi sail guztiotan; batzuk begiz jasoten doguz, beste batzuk belarriz. Eta zenbait gogozentzunez.

Ertiliarietan, ots, ederra agertzen, olerkaria daukagu gorenengo armaillan. Arranoa arkaitz-kukutzean lez. Irudimen zangarrez jantzia da olerkaria. Almen onen bitartez, gauzaen antz sumagarriak, zentzunekaz beregandurik, barrien barri ugaritu, bildu ta eratzen dauz; oldozkun ta gogorakizunik gordeenak be irudien jantzi bizitan azaltzen dauskuz. Uste ta gogaien mamiña itzezko azal bikaiñez adierazo, or olerkariaren zeregiña. Ontan, jakite-zale ta olerkaria ez dabiltz bide batez, baiña alkarrengandik ur samar bai: a, gauzen zio ta lege nagusi billa dabilkigu; au, ostera, gauzen mamiña ta, batez be, barne-muiña bizi-bizi agertu naiean. Itxuraz alkarren aurka, egiz zaletasun bardiñak azkortuta.

Olerkariak ba-daki, beraren doai apartekoeri esker, eder-iturria nun dagoan eta ara doakigu laster, oreiña ur-ertzera legetxe. Samin, zirra, pozbide, kezka, ur, zeru, zugatz, txori... milla gauza oneik irauli ta alkar bilduz, olerki-lanik atseingarriena egin dagikenik, nok ukatuko ote? Gogaiak sortzea asmamenari zoe, bai ta soiñeko bikaiñez jantzirik agertzea be. Asmamen ta irudimen jatorrezko olerkariak erraz ta samur adierazo oi dauskuz bere uste-oldozpenak, batez be goi-argiak birloratuta lan dagianean.

Egia: erti-lana osotzeko trebetasuna be bear dogu. Argiñari egokitasuna eskatzen yako trintxa era-

bilten; arte ta bizitasuna edozein ertilariri. Trebetasun au erdiz berezkoa da, erdiz ikasiaz lortzen dana. Margo-ertiarri diardutsanak, margo-arauak jakin bear; olergintzan diarduanak, neurkera legeak. Onela ezik, ez da iñolako eder-lanik, ezta ezer osoan egiñik. Jakiñez edo arterik ez onek zenbat asmo garai alperrik txordotu ditun.

* * *

Olerkariari —naiz edozein artistari— erabat yagokozan oiñarri ta lege oneik tinkotu ondoren, gatozan orain dagokigun arira.

Olerki liburu barri bat daukagu eskuetan. Olerkari gazte batena. Ez da andi, ez da txiki, bai bien arteko. Ez da bakarra be: oraindik oraintsu beste bat argitara emon euskun (ORBELAK, Zarautz, 1958) larogei orrialdedun liburuxka, olerki labur, goxo, ariñez apaindua. Eta, Jainkoa lagun, ez da azkena be izango. Lendik be, bada, ezaguna dogu Kerexeta jauna euskal-elerlian, bai ta musika sail eta andi edo odol garbikoen arma azterketa edo mazmarroiztian be.

Igaz, ORBELAK argitaratzean, ainbatek emon eben euren eretxia, ta guztiak onetan etozan bat: Kerexeta olerkari errez, bizi, ariña dogula, "berak ikusi ta ikasiari dagokiola ta, barrengo deiari erantzunaz, bere aoz mintzatzen zaigula"; "bere olerkiak alako berezitasun batez jantziak agertzen yakuzala, ez-oiuta gure artean"; bere poesiari euskal usaiadariola lau aldetatik; gure garo-usai, gure mendi-usai, ta odoldio eze bigun ankapean...". Lizardi

ta Lauaxeta'ren oiñatzei jarraiki dabilhela, ta abar. Danak bera gorai patuz ta txalo-zartaka.

Giza-biotz bakoitzak —gizaldiak orobat— bere xeetasun bereziak ditu; zerbait ilten ez dana ondoren itxi nai guztiok; eta zerbait ori dogu, egin-eginañean be, guk erti-lanetan —olerki, ereserki, giza-irudi, etxe ta itxas-tresna— erantzita itxi gura doguna. Kerexeta'ren berezitasun ori be, ez da orixe besterik: bizi-naia, illezkortuz ta aldi-zear iraun-azoz.

Ignaz mendi, ira, oroldi-usaiañez blei-blei etorkigun elorriotar olerkari gaztea; aurtan barrukoago datorrigu, lirika-poesiz gañezka, "mintzo erne, ugari ta atsegiañez". Aor dana esanik. Olerkarietan batzuk jori ta dirdaitu doguz, lore-margoz orniduak, andi ta zangar, biotzondo biziko; beste batzuk, labor ta zur, bizi ta arin. Gure artean, argibidez, Jauregi, Tapia-Perurena, Loramendi, Iratzeder ta abar lenengoen sailleko; Lizardi, Orixe, Zaitegi, Lauaxeta, Gaztelu ta abar, bigarrenen arteko. Kerexeta be azkenengo oneikaz sailkatu bear.

Errez ta goxo dala diñot Kerexeta, ta ez nabil guzurretan. Irakurri liburu onetako edozein olerki. Esanaren eusgarri, ona bat bera. Neska bat pianu jotan. Chopin'en eresi bigunak atz artean dauzalarik; alan be, zerbait ba-dau biotzean, arpegia itundu yako-ta. Olerkariak, oster, aren barruan zer jatzoten dan jakin nai. Ona:

"Oi, nik irakurten ba'neki biotzeko ezkutua!
Zu ezagutzeko ba'nendi goiz batekoz aingerua!".

Izan be, gaurko olerkia, ots, lirika olerkia ez da luze, ez bulkoz ez itz-jarioz. Eta kantagaia? Ez ditu maite gai jasoak, ezerez ta utsalak baiño.

Eta liburu ontakoak —irakurritz dakuskezu— zazpi aapalditik beerakoak dituzu danak: oso motz eta bizkorrak. Baiña au bai gero, gunez ta kirioz gañazpi oretuak. Gaia barriz, zelakoa? Arrunta nunbait, egunero darabilguna: maitasuna. Asko erabilliz lokatu samarra? Ez orixe; giza-biotzekoa izan arren, duin ta aratza baiño. Maite-kantazko askoren artean, ona bat aukeratu. Artizarra ixil agiri da amaitzen ez dan ortzean; maitea be ixilik, izarra iduri, beti eresi ixillean. Eta olerkariak onela:

"Izarren argia dozu
zure begi urdiñetan;
izarren soñu biguna
maillukizko ezpanetan".

Neurkeraz ondo taiatuak ditu, itz-uts ta betegarri barik. Neurri batzuk oso bakanak be ba-darabiltz noizik-bein, zazpi ta zortziko, esate baterako. Baiña beti egoki neurtu ta amaituak, beti aapaldi oskidetsuak. Ona:

"Zortzi egunez
ekin eutsen andrak
otoiari;
ta zortzi gaeuz
odeiak, —samurki—,
negarrari".

Naita gaurkotasunez ornia izan aztertzen gabiltzan olerkia, ba-dau gure olertzale zarrakin zenbat aldiz zer ikusia; arein antzera aratzen bai ditu sa-

rri. Onako olerki ontan, adibidez, irudimenaren ezin-egon eta urduritasunez uda barrira doa lenendik olerkaria, gaztearengana ondoren. Ona emen aipaldi bat:

"Ez dau iñoiz ezautu udabarriak ustelik; iñoiz ez da ezautu maitasun bako gazterik".

Bein edo bein erromantiku antzera agertzen yaku, onako koplak onetan lez:

"Zure izena ortzean izar-ametsez dakust; zure itz leuna errekan arrain-eresiz dantzut".

Eta sarri esakun dotore ta apañez borobilduta:

"Iñoiz ez da galdu neguz urrezko maitasunik".

Edo au:

"Bizitza, ortzea da: gaur, oztin; biar, laiñotsu".

Amaitzeko, onela dogu Kerexeta'ren olerkia, berariz esku artean dozun liburu ontan damoskuna: poesi jatorra, gaurkoa, barrukoia, bere-berea, lirika-sailekoa; bizitasunez, irudiz ta biotz-zirrara leunez gatzatua; arin, zuri ta argi diñosku esan nai dauskuna.

Argi be bai, gero? Bai, irakurle. Gaurko lirika poesia berez dogu, geienik beintzat, bulkoz giar ta jantziz motz dalako edo, argi bi artekoa, illun samarra. Eta ez gaiak ori eskatzen dualako, egilleak orrela nairik baiño. Esan dogunez, aldi bakoitzak dau berezitasuna, ta gurearena orixe da antza, illunabar lez izatea.

Guk, gaiñera, euskal idazleok ba-darabilgu gaur beste auzi bat be, neketsu samarra; ots, guztiok eta ekiñalean, geure gogo, euskal gogo erdi-lausotua biztu-eragin, azkortu, indartu gura-ta gabiltzan arren, geure berezko akats bati amor emonik, buru ainbat aburu doguz tamal aundiz, eta guztion uste, aburu ta eretxiak batera ekarri ta korapillo dirdaitsuz lotu bearrean, aurrez-aurre lez bizi gara askotxo beiñik-beiñean. Alan eta guztiz be, Zaitegi'k bikainki: "Gazte geientsuenak irizpide ederra erakusten dute, erdiko bidetik doaz, alegia. Auxe eskatuko nieke gazteoi, ordea: bide ortatik barrena, itxu-itxuan jo dezatela, euskera edozertarako egoki-araziz".

Eta Kerexeta, gazte zentzundun onein arteko dozu. Ez dabil ez ezkertar, ez eskumatar; ez garbiza-leegi, ez mordoillo-lanbrotan; erdiko bitxidior oker-une gabekotik dabilkigu buru-tente. Edozeiñek irakurri leikez bere olerki tranbeliñak, irakur-alan osorik aitu ta ulertzeko moduan.

Gabiltzan danok era berean. Eta euskera batasuna, idatzi-batasuna bederen, igarri barik egingo dogu.

Larrea, 1959-X-24'an.

AITA ONAINDIA

Maitasunari
gaztaroan
abestu ezik,
noizko itzi?

Kanpai-otsa

Kanpai-otsa torrean:
norbait il da, itxuraz.
Txoriak ixil, mutu,
otsaren durundaz.

Erritarrak, erreguz;
etxandrak, itaunez:
“Nor il da?” Ta guztiak:
“Kaleon, iñor ez.”

Ez dakie nor il dan;
iñor geisorik bai?
Ez egin jaramonik
erriko kanpaiari!

Baiña eurak, astiro,
din-daun diardue:
eguneko egia
eurak dirautsue.

Ekin gogor, kanpaiok;
zabal gure ituna!
Gaur goizeon il baita
biren maitasuna!

Goizalde

Goizalde; lainoz illun.
Zurrumbilloz edur-matazak;
lotan ibar osoa;
kirrinkalari itxas-antzarrak...

Negu izan, gazte, negu!
Otz landan, otzago barruan,
maitasun baten eske
bizi dan biotz larrituan.

Onek ez dau etenik.
Ta egon, dardaraka, egon;
ta bizi, iltzear, bizi:
nireak ein dau neguteon.

Ames-bidetan zear
narabil nire goi-argiak:
“Ez adi bildur, biotz;
jaso gorantz gogo-begiak!”

Bitartean... edurra
jausi ta jausi. Nok leikean
nireganako leia
garreztu zure barrenean!

Abesti-miñez

Abesti-miñez jagi naz
udazken-goiz onetan;
ego-aizea dot lagun
aurreko zugatzetan.

Anboto, lengo tokian
geldi, mendi ta ibar zain;
areitzak, soiñeko baga,
ta orbelak gura lain.

Azken-iratzak mendian
igitaiari deika;
basoko bide estuetan
burdiaren kirrinka.

Udagoi-azken-arnasak
arduraz jarri nabe:
izango ote-naz neguan
Maitederraren jabe?

Zagoz ixil, oiñaze-ezpai;
ez dagidan bildurrik:
iñoiz ez da galdu neguz
urrezko maitasunik!

Zeuri, Jainko

Zeuri, Jainko, eten gabe esker
neska orren ederragaitik;
Zeugandik datorkio, bada,
dauana; ta ez beregandik.

Eskerrak egiñez gaiñera,
aren alde dagitsut, otoi:
gorputz apaiñaren barruan
ba-daiteke izan arima loi.

Eder orren arazoetan
ager egiozu zure itza:
Zeu baitzara, —soilki—, bidea,
egia ta zeru-bizitza.

Ta alkarrentzat garan ezkeru,
iraun eragiozu, Jauna,
oraingo barreirri ezta
ta begien ditzira leuna.

Zure izpillu izan dakidala,
aregan Zerori ikusteko;
aregaz batera Zurekin
zorion betea izateko.

Zeuri, Jauna, barriro bere,
aintza oro ta eskarrona;
gorde Zugan nirekin beti
nire biotzaren kutuna!

Artega dot biotza

Zer diñostazun begira
artega dot biotza;
entzun eziñik, goizetan,
antxiñako abotsa.

Etxe-aurrean izketan,
zure ordez, aizea;
noizean bein ba-dakarkit
zure agur-ordea.

Nire bakarraldietan
negar dagit isilik;
zer egin daiket, bestela,
maite dana urrindurik?

Izar danen abestia
betorkit poztutera,
eta beraren laztanez
oiñaze au kentzera!

Erretan daukat burua;
otzez, dar-dar, arima;
larri darabilt arnasa...
Nik dodan maite-miña!

“Biar, biar eta biar...”
Orixe da zure itza.
Biztu eidazu beingoan
daroadan gau itsa!

Begi biok

Begi biok ikusiz,
bizi nintzan egunero;
bakea galdu yatan,
ilhez, urrunduz gero.

Arein billa nenbillen
lerdoi-zear, lats-ertzetan;
oiñok ez ziran gauza
ainbesterako ixilletan.

Argirik ez zan nigaz,
—zureok baitziran izar—;
ta barruko bideok
neguko edurrez, zidar.

Basoetara urrinduz,
busti nenduan laiñoak;
mendietara igonez,
ots egin eutsun biotzak.

Ta ez zara aztu nitzaz:
damuz zatorkidaz orain.
Zerua jaritsi dot
atzoko naigabe-ordain.

Bizitza, ortzea da:
gaur, oztin; biar, laiñotsu.
Izan gaitzezan biok
amai baga zoriontsu!

Udabarri-biotz bat

Udabarri-biotz bat
dot nire ondoan;
eta lore barria
erne yat gogoan.

Neguan amets zana
orain egi dakit;
iñoiz maite ez nebana
nirekin darabilt.

Eun ortzeren jabe naz
lora barri onaz.
Zer egin ete-daiket
dodan zorionaz?

Ez da izaten, ordea,
lora luzaroko;
ezta illargia, bere,
zeru-zain gau oro.

Gaur argitsu dodana,
biar ez ainbeste;
nok gazteon biotzok
maitasunez bete?

Dagidan indar gaurkoz!
Zu ta ni baturik,
ez daigun bear iñoiz
beste maitasunik!

Euria eten gabe

Euria da nire
biotzean...
(Paul Verlain)

Euria eten gabe
nire biotzean.
Euria mara-mara
zure ta nirean.

Euriaren gozoa
gure barreanean!
Ez dau miñik egiten
uda-arrats beretan.

Zer bear dau besterik
maitasun goriak?
Busti, arren, odeiok,
gure biotz biak!

Zeuretzat

Zeuretzat nire goiz-abestia!
Zetako zaitut izar igeskor?
Bizitzako zidor lanbrotsuan
egunero zakusdaz aldakor.

Aize-egotan damotsut
agurrik samurrena;
zugandik lortu nairik
etorkizun-baimena.

Zeuretzat eguneko kantua!
Nire etxeko leioa egoaz
elai baltzizkak jo daistenean,
neure gogoan izango zaudaz.

Eta itzaliz doala
egunaren argia,
artu eidazu, neska,
nire gau-eresia!

Ogetalau urtez

Ogetalau urtez
il zan araneko
atsegiña;
aren ondoren
galdu zan udako
neska-miña.

Eun lore-txorta
ta orbelak, —maitez—,
illobian;
ego-aizea,
illeta-eresiz,
areiztian.

Zortzi egunez
ekin eutsen andrak
otoiari;
ta zortzi gauetz
odeiak, —samurki—,
negarrari.

Eta Urrilgo gau
zoragarri baten
illargitan,
—adi, biotzok!—,
soiñu au entzun zan
urrutian:

“Egin bizitzan,
gazteok, maitasun
illezkorrak!
Landu zuekan
adiskidetasun
betikorrak!”

Arrats-bera

Juventud, divino tesoro,
iya te vas para no volver!...
(Rubén Darío)

Arrats-bera gorrienean
ostenduz doa eguzkia;
ta egunaren beroz datza,
buru-makur, Ama Izadia.

Zugatzen geriza luzea
mendi-amaieran ausi da;
ba-dator, geldiro-geldiro,
itzal-jabe dogun gau-illa.

Gaba dot inguru ta barru;
baita nazan au be, gau nozu...
Gau-txorai ezaun naiake:
eurak dakarstez zure eun mosu.

“Gaztaro, altxor zerukorra:
etorririk ezaz, ba-zoaz!”
Bakartaldi amai bageak
iruntzi nau bere besoaz.

Baiña... itxaropen-izpiz dakust,
urrun, gaztaro-Erregiña.
Urreratu zakidaz, Izar,
ta batu bion alkarmiña!

Sei zauri

Sei zauri dodaz barruan
maite-ebak zulatuak.
Samiñak biotz-ondoan
sei azkonen eztenak!

Zuloak ez dau negarrik;
neuk bai zotin ixilla,
gaztelu baten gogorrez
ezetzak eragiña.

Urrezko arrats onetan
barrero natorkizu;
emen dozu edontzia:
poza biztu egizu!

Ta nire lorak baturik,
azken-aldiz zakusdaz:
zauri, edontzi ta lorak,
guztiak domotsudaz!

Zu maite

Banatzen itzi egistazu, neska,
nire nai zatitu-eziña;
arima Jainkoa'rentzat dot-eta,
emen daukat biotz gordiña.

Zu maite zaitudazanez gaiñera,
Ama-Lurak arren dei dagist.
Zelan zatitu nik biotz bakar au?
Ezpaia Espiritu'k dargist:

“Milla pizkunde-urte opa eiozuz
zure Aberri maiteari;
ta beste arenbeste laztan zure
biotzeko Maitederrari!”

Gaur ikusi dot

Gaur ikusi dot lenengoz
alizar bat lurean;
gaur ezagutu dot zer dan
gelditu yatanean.

Edur betikorren zuriz
eukan bere jantzia;
udako arrats gorrizkaz
aingeru-arpegia.

Beste mundukoren batek
emon eutsan ederra,
izar mugetatik aruntz
jesanik barre-eskerra?

Ezin dana, ezin esan.
Aingeru zaitut, neska?
Ez ba'zaiz be... zatorkidaz
maitasunez gainezka!

Ainbat urte

Ainbat urte igaro dodaz
maitasun-jardun leunetan;
zeugaz diardut luzaro
betiko alkar-izketan.

Ezaunak yakuz bideak,
ezaunak zugatz-gerizak;
ba-dakie gure barri
erriko baso-elizak.

Orriz beterik areitzak
ta neguruntz orri bage...
Noiz izango ote-nozu
zure biotzaren jabe?

Dagitzun argi sasoiak
lotatik iratzarturik:
ta udako goiz zuri batek
mun dagiskula alkarturik!

Josita dagoz

Josita dagoz izarrak
amaitzen ez dan ortzean?
Zer diñosku artizarrak
Gabonilleko gabetan?

Eta zu isilik zayataz
udagoiengo goizetan?
Zu eta izarrak, bardiñak:
beti eresi isilletan!

Izarren argia dozu
zure begi urdiñetan;
izarren soñu biguna
maillukizko ezpanetan.

Lats-ertzetan dabillanak
ez dauka uraren bearrik;
lur onetan bizi danak,
noiz euki zu lako izarririk?

Izarrak, ortzea ta zu:
biotzaren iru gogo!
Zakidaz zu, ezpai baga,
niretzat zorion oso!

Oroipenetan

Oroipenetan murgildurik
amaitu dot gaurko lana.
Bion inguruan, lo-antzez,
illuntziko bake dana.

Gaztaroari egun bat zor,
ta ule zuri bat geiago.
Betiko maitasun-gosea
nire baitan bareago.

Gau-ezkillak otsak torrean
otoitzerako deituaz;
ta barrero ixilla, bakea,
bakarraldia zainduaz.

Gogoak zuregandik azke:
ez dauugarri-bearrik;
atseden dagidan gaur beintzat
enegan bakar-bakarrik.

Ta nire bake-bitartean,
zakidaz amets-zaintzaille;
biar izan nakizun, Maite,
oroipenen kontatzaille!

Bizi

Beti dot biotzean
il baten udabarria:
noizbait maite izan neban
arratsen zoragarria.

Bizi, bizi da bera;
baiña nigan ez. Onela,
zelan eroan daiket
nigan maitasun ustela?

Ez dau iñoiz ezautu
udabarriak ustelik;
iñoiz ez da ezautu
maitasun bako gazterik.

Lotan dagon maite illak
bizitza dau bere baitan;
itxaron dagiodan
zeruko izarren argitan.

Aingeruen ego-otsez
iratzartu zaiteala;
barreirriz poztu daizun
nire bizitza makala!

Noiz dira

Noiz dira baratzeak lorez?
Lizarrak orriz jantziak?
Noizko giltzez edegi dira
maitasunaren ateak?

Urte guztien sasoietan
beti nago atarian;
bata bestearen ezpaitan
murgildu naz aspaldian.

Bete dagidan onezkero
gogo zure ondoan;
alaitu dagigun bizitza
batasunaren gozotan.

Naiko da edurrik, naiko da!
Betorkigu uda ederra;
sugar illeziñaz bizturik
gure biotzen barrena!

Zure barrea

Ez dautsut larixo eskatzen:
miñutu bat egunean...
zure begiak ikusiz,
zeruak zabal daidazan.

Zure barrea ikusteko,
miñutu bat egunean;
niretzat dozun biotza
gutziz ezautu dagidan.

Miñutu bat egunean...
zure itz leunak entzuteko;
eta aingeruzko laztanez
gure asmoak batzeko.

Zu bage ezer ez bait-yataz
orduak, egun ta urteak,
zu maitatzen biziteko...
urte guttiko uneak!

Goazan

Vamos, Platero...
(J. R. Jiménez)

Goazan, "Zuri", goazan
mendirantz, Memaia'ra,
(lagunik ez dot gaur-eta),
laiñotan murgiltzera.

Ondezik dago Pilartxu!,
—penaz negarrez lerrak—,
ta gu ba-goaz, astiro...
—penaz zidor ta larrak—.

Bidean gelditu bear!:
oiñak burdin bi dira.
Txakurra esan gurarik:
"Eldu gara mendira?"

Zertarako eztabaidan!
Bat falta dan artean,
goazan, "Zuri", barrero
oiñetxera... Goazan...

Zure eskua

Zure eskua lore batz
alkartu zanean,
zein zan esku ta lorea
ziur ez nekian.

Ez dot izan arrezkero
barruan bakerik.
Zuk, bere, ez zurean, nonbait,
ezpaia besterik.

Nire sasoirik onena
agurrez doakit;
zurea nor izango dan
ziur nik ez dakit.

Ta jarraitu ez dagigun
bizitzan laiñotsu,
berandu baiño lenago...
zadiz zoriontsu!

Zer dozu biotzean?

Zer dozu biotzean?
Itun dozu arpegia.
Zer dozu biotzean?
Urrundu yatzu argia.

.....

Oi, nik irakurten ba'neki
biotzeko ezkutua!
Zu ezagutzeko ba'nendi
goiz batekoz aingerua!

Chopin'en eresi bigunak
dabiltz pianu zurian;
ta udazkenengo illunabarrez
sartu yatzuz biotzean.

Udaberrirantz jo egizu:
or dozu Mozart alaia;
berau izan daikezu beti
zure oiñazen amaia.

Barre egin, kantau, lilluratu:
gazte-aroko izakera!
Onela izan zan arrezkero
neska aren biotz minbera.

Jo danbadak

Jo danbadak, odeiok,
gaurko sargoritan;
eta bitartean,
itzi naizue baketan!

Busti nagizu, laiño,
uda-arrats onetan;
sar zakidaz, leunki,
izatearen muiñetan.

Egin orro, aizebaltz,
areizti-ondoan;
ta otzitu nadin
zure zurrunbilloetan!

Gaur ez dot lagunkide
nire gogokoa;
entzun daidan, beraz,
barruko mintzo gozoa.

Eta Izadi-erdian
nagoan artean,
gaur beintzat, Maiteder,
itzi nagizu bakean!

Zure oroiz

Zure oroiz amets dagit,
ezautu bako kutuna!
Ez dozu erne bizitzan
nire maitasun biguna.

Beti arduraz nenbillen
mendietako bidetan;
zu, barriz, nigandik urrun
erri barruko kaletan.

Amaika bidar negarrez
igaro dodaz egunak;
zutzaz oroitzeke iñoiz be ez
gaztetako gau illunak.

Iñoiz ezaun ba'zenkidaz,
naigabez ilgo nintzake;
ta orain, bizi nazanez,
jarrai dagidan zu bage.

Ames egin ezautzeke:
au bai izarren eresia!
Igaro dagidan olan
mundu ontako bizia!

Aingerua

Aingerua dot ondoan:
batek iges zerutik?
Ezin euki lora onek
min dagian eztenik.

Nok gura ez egun oro
goiz bateko ondasuna?
Orixe da, eurrez, nire
ondoko aingerua.

Edergarri uda-arratsak
damoskuen mosua?
Orixe bera da nire
alboko aingerua.

Izar zurien izpiez,
nok ez egin ametsik?
Nok izan nirea lako
aingeruzko maiterik?

Onenbesteko zerurik
izan da iñoiz lurrean?
Nor leitekean illezkor
gaztaro laburrean!

Udazken-goiza

Udazken-goiza, bakez;
goian, azken-izarra
ba-doa, bizi-naiez;
intzez diz-diz, lizarra.

Zure izena ortzean
izar-ametsez dakust;
zure itz leuna errekan
arrain-eresiz dantzut.

Amets dagit buruaz
bear baiño geiago;
biotz motel au, barriz,
negute baten dago.

Maitalari-ordua
sartu yat barrenera,
otzez dodan barru au
laztanez bizkortzera.

Lo-zale zaitudaze,
nire begi nagiok!
Norako itzi nozue
geldi, bide-argiok?

Iratzar, ene gogo!
Jagi zure lotatik:
eroan naian goizak
maitasun-bidetatik!

Beti alai

Betiko oroipenetan
darabil burua;
eta here ezpanetan
abesti biguna.

Beti alai bizi da
basarri-neskatxa;
berarentzat landu dau
atsegin-baratza.

Aren oiñetan datza,
legunki, bedartza;
lurpean sartu da, isil,
elorri-arantza.

Edur-jantziz dagonak,
ez dau nai ibarrera;
oztin-zale diranak
zerurantz jokera.

Izadi-maitatzaille,
biotzaren jabe:
zer daikegu gazteok
neska zuri gabe?

Zuek, egon ta itxaron
iñoizko eziña...
Artu dagidan nik, be,
bidetxo bardiña!

Gaurko neskatxa

Gaurko neskatxa zuriak
ez dau maite nai mutillik.
Bakarrik bizi daiteke
izarren izpi-zalerik?

Umetsxoaren antzera
kolorezko mitxeletaz,
udagoi-arrats beretan
ames-dagit, Uso, zutzaz.

Biotz-barruko gurariz,
zure baietza ditzarot;
zukanako lei gozoa
gaztaro osotan bizì dot.

Ta uste bagako aldian,
zabaldu bediz elizan
atariko ate biak
udabarri-eztegutan!

Mirari bat

Mirari bat ikusi dot
eliza-bidean;
zeru-argia agertu yat
gaur nik zu ikustean.

Gozoagoa oraindik
zure irribarrea;
ta ez da izan ederrago
zuk ni maitatzea?

Urrun oiñaze sakonak!
Zabal garai-otsak!
Gugan galdatu baitira
iru zorionak!

Zure omenez

Zure omenez natorkizu
nire egun baltzenean;
pozkarrri samur zakidazan
illuntzi apalean.

Negu-areitz antzera nago
oroipen lainotsutan;
kale-txoria lez, iltzear,
Otsailgo edurtzetan.

Izadi dana isilik datza;
lo aizea lerdoian;
giro eze ta eguzki-min
odeiak zeru goian.

Biziaz naiko dot gaurkoz-ta,
itxaropenak naroa
orduz-ordu eguerdirantz.
Isilik... Bai; ba-noa.

Ta idoro zaitut illuntzian!
Ez dot galdu bizia.
Neska: zakidaz beti nire
bidetako zuzia!

Barriro, be

Barriro, be, ba-zoaz
ixil-baratzera;
bizitza-naigabeak
bertan lurpetzera.

Joan-ettorri zabiltz
gogoaz olgetan.
Ba-dozu maitalerik
zure biotzean?

Maitasunak zaroaz
udako goizetan
bakartasun-altzora
ames bigunetan.

Lore-artean dozu
zure zain, kutuna;
ondora eldu arte
gabetako illuna.

Lorak, arantzak ta ni:
nor autuko dozu?
Zuk, ez dakizu ziur.
Nik, lorak eta zu.

Arrats-berako

Arrats-berako ordu oztiñok,
ez egin, arren, negarrik!
Gaur galtzen dozuen bizitza,
biar barrero bizirik.

Egazti egun-pozkilleok,
gorde biarko soiñuak!
Goian darraitse eresiari,
guztion ordez, izarrak.

Milla kolorezko larrosok,
zuriz dozuez jantziak;
eguneko edergarria
ostu dautsue illargiak.

Ta bitartean, Erregiña,
ez zaitut aldamenean.
Zoaze hilla, gau-gerizok,
illunaren ixilletan!

Uso bake-geznariok

Uso bake-geznariok,
erruki zakidaze!
Aspaldion beti bait-dot
biotzean oiñaze.

Poza galdu yatanetik,
bakarrik gelditu naz;
estu darabilt arnasa
ilten nauan itunaz.

Sagartzak lorez darraie
Jorrailgo egunetan;
neskatxak jolasez dabiltz
bedar bako landetan.

Zelaiko gaztèn artean
galdu yatan bakea.
Orra nun dakusdan barriz
nire lengo maitea!

Lorez beterik

Loitu bagako bidetatik
azke-naiak darraitsu;
areitz-orri urten barriak
laztan mea dagitsu.

Lorez beterik goiz-sagartzak,
orri бага oraindik;
txori ezagunak ba-datoz
urrungo lurraldetik.

Iruntzez zuri zidor-ertzak;
izar-jantziz bedartza;
mendietatik berantz dator
euzkiaren lorratza.

Zelaietan lore utsa zara,
nire neska liraiña;
zuri begira geldi dago
goiz-artizar oztiña.

Zure arnasez itzartu da
lo egoan pagoa;
soiñu leunez herbiztu dozu
bakez dagon basoa.

Maitasun-egoz narozazu
zu zagozan tokira:
gagozan biok alkaturik
zeruari begira!

Gure egunak

Gure egunak ba-doaz,
gaztaro-egun oneik;
bere ^o joan ariñak
ez dausku itzi lorerik.

Penaz ikusten dodaz
latseko ur garbiak;
penaz agur dagiste
udazken-ozkarbiak.

Agur, gazte-uskeriok:
ez dozue etortterik!
Agur, maite-ametsok:
ba-zoaze urrindurik!

(1) Gaztaroarenak, alegia.

Nadin baketan nire
gogo naigabetuaz;
ezertxo ez dot gura
bizikera urratuaz.

Zu ondoan izanik,
naiko dot pozkarririk.
Nun aurkitu zu lako
beste maitagarririk?

Gaur, auzoan

Gaur, auzoan, jaiegun-arrats.
Izketan neska-mutillak:
Leiz'ko San Lorentzo eguna
alaitu dau Dagonillak.

Unetan, ermita-ondoan,
txistua ta danboliña;
zelai-erdian asetu da
gazte-oiñen dantza-miña.

Guztiak ez dira, ordea,
dantza-zale: lur onetan
beste egitekorik ba-dago
lilluratuen artean.

Barreirriz alkar ederretsi
ta maite-penak kontatu:
auxe bai dala aspaldi ontan
igandetako poz-kantu!

Beti zaitut

Beti zaitut nik begi-aurrean:
goizaldean ta eguerdian;
arrats-beretan lore-artean;
izarren argitan illuntzian.

Udabarri alaiz jantzi zara;
garitza elduz dozu ule mea;
maillukiz, ezpanak; ta arpegian
udagoi epelaren barrea.

Aingeruen egoz darabizu
lurrak loitu bagako gorputza.
Beste zerbait bear zeuke orain:
nireganako maitasun utsa!

.....

Zegaitik dogu negu Otsailla?
Zer dala-ta euritsu Epailla?
Ta Jorrailla orritsu? Ez dakit.
Baiña... zakidaz nire Loraila!

Udabarri-abestia

Mutillen kantu alaiak
atsegin beiez neskatxak!

Goizeko Izar-nagusia
begien izpi bizia;
udabarriko argiak
gorriz jantzi dau mendia.

Egunaren biotzean
lotan diardu lerroiak;
makilla-otsez bidean
ikara dira basoak.

Mutillen kantu alaiak
atsegin beiez neskatxak!

Itzi bakean, gazteok,
geldi dagozan gaztaiñak!
Esan barrero alkarri
dozuezan maite-miñak!

.....

Goizeko printza gorriakak
urre gorria arratsean.
Kalera dator taldea
maitasun batz penzetan...

Mutillen kantu alaiak
atsegin beiez neskatxak!

Illargi-izpi bat

Illargi-izpi bat sartu da
biotzeko barrenera;
ozkarbiaren iruntza
nire ta zure gaiñera.

Gau-erdiko kanpai-otsak
izketan artu gaitue;
ta betiko izarrak euren
agur leuna damoskue.

Alkarren leia aipatzeko,
ez da illunik eta argirik:
maitasun baten negarra
geugaz daukagu bizirik.

Onela joan-etorri
egunak, gauak, urteak...
iraun dagiela gure
betiko alkar-izketak!

Zeugana

Zeugana natorkizu
udazken-goiz onetan;
zeuk atsegindu naizun
nire oiñazetan.

Biotza ausita dakart;
min dot barreanean;
aize-negar dirudit
egun baltzenean.

Zure begi urdiñok
erruki bekidaz;
izar bi dagidazan
amai bage nigaz.

Zeugan ditxarot, maite,
itxaron-eziña;
zeuk berbiztu baitzeike
gure alkarmiña!

Ixil-ixilik

Ixil-ixilik dago
gau zoragarria,
zeruko jabe dala
illargi garbia.

Aren argi zuriaz
aitzak edur dira;
ibarreko lainoa
igo da mendira.

Goiz eta illuntzi oro
nabil zure billa;
zure arduraz il da
aurtengo Urrilla.

Gabez barriz, maitea,
ez zoaz iñora:
neu bainozu atean
zure artzaiñora.

Sar bedi nire leia
zure biotzean:
alkar maite daigula
betiko bakean!

Begi zoragarrienak

Begi zoragarrienak
zure berdeok ei'ziran;
eta ikusiaz batera
neuk be bardin esan neban.

Berdez landetan bedartza
ta areitzetako kardatxa;
urrez jantzi da garitzan
amabost urtez neskatxa.

Begi berdeak ta ulea:
Begoñatxo'ren altxorrak!
Onen omenez eresiz
Elizburu'ko txindorrak.

Bayona-osterakoan,
itun dabil bere errian;
urrezko motots bikaiña
galdu dau gure artean

Gurutz-bideko usoak
negar dagitse ixilletan...
Begoñatxo'ren urretza
norbaiten biotz-muiñetan!

Arrats-apalean

Arrats-apalean, udazken-bakean,
alai, bizkor, argi, txistua zelaian:
izango ete-da "Arin-arin",
neska liraiñen eresi-min?

Ez dakit. Biotzak, baiezkoa diñost;
aize-otsak, bere, poz-baietza damost.
Utsik egin daike biotzak?
Ezetzear nago... Ametsak!

Ta bizkar goren au eguzkitan dago;
oroi dagit nitzaz: geisoik ete-nago?
Au jakiñik, ez dot negarrik:
goi-bidea dakust zabalik!

Gure maitasuna daukagu geisorik!
—Zer da maitasuna gogo-bake barik?—
Berak dakarsku zoriona,
bera baita goi-ondasuna!

Aizkora-otsak

Aizkora-otsak dira
baso-ekutuan:
gizakiren bat dar-dar
alaka estutan.

Erasten diardue
mendiko pagoak;
gizaldietan zutik
egozan enborrak.

Areitzak eta urkiak
or doaz lurrera;
ta eurakin daroe
geritza otz-bera.

Penaz dakusku gure
zugatzen iltzea!
Ez da izan bardin gure
maitasun-galtzea?

Il naitenean

Il naitenean,
ez busti zapirik
alperrik;
ez jarri, arren,
ilkutxa-gaiñean
lorerik.

Ez erakutsi
guztien aurrean
penarik:
gorde betiko
gure maitasuna
bakarrik.

Agertu Urtzi'ri
zure biotzeko
samiña;
goian dagigun
lur ontako bete
eziña.

Lotu eskuan
nirekin Gurutze
Gurena;
ta jaso gorantz
bizitzako otoiрик
onena!

Azken-agurra

Negu-egun laburrak
otzitu zaizanean:
ar egistazuz, eder, ⁽¹⁾
nire udazken-agurrak.

Aitzetako edurra
urtuez doanean:
ar egistazu, maite,
nire azken-agurra.

Elai-ego samurrak
jolaz daitzuenean:
ar egistazuz, eder,
nire udazken-agurrak.

(1) Edo-ta "artu eidazuz, eder..."

Areitzetan ezkurra
ikusi daizunean:
ar egistazu, maite,
nire azken-agurra.

Biotzeko kutunak
laztandu zaizanean:
ar egistazuz, eder,
nire udazken-agurrak.

Niganako ontasuna
galdu dagizunean:
gorde betiko zugan
nire azken-agurra!

BILLABIDE

| | |
|--------------------------|----|
| Kanpai-otsa | 26 |
| Goizalde | 28 |
| Abesti-miñez | 30 |
| Zeuri, Jainko | 32 |
| Artega dot biotza | 34 |
| Begi biok | 36 |
| Udabarri-biotz bat | 38 |
| Euria eten gabe | 40 |
| Zeuretzat | 41 |
| Ogetalau urtez | 42 |
| Arrats-bera | 44 |
| Sei zauri | 46 |
| Zu maite | 47 |
| Gaur ikusi dot | 48 |
| Ainbat urte | 49 |
| Josita dagoz | 50 |
| Oroipenetan | 52 |
| Bizi | 54 |
| Noiz dira | 56 |
| Zure barrea | 57 |
| Goazan | 58 |
| Zure eskua | 59 |

| | |
|--------------------------|----|
| Zer dozu biotzean? | 60 |
| Jo danbadak | 62 |
| Zure oroiz | 64 |
| Aingerua | 66 |
| Udazken-goiza | 68 |
| Beti alai | 70 |
| Gaurko neskatxa | 72 |
| Mirari bat | 73 |
| Zure omenez | 74 |
| Barrero, be | 76 |
| Arrats-berako | 78 |
| Uso bake-geznariok | 79 |
| Lorez beterik | 80 |
| Gure egunak | 82 |
| Gaur, auzoan | 84 |
| Beti zaitut | 85 |
| Udabarri-abestia | 86 |
| Illargi-izpi bat | 88 |
| Zeugana | 89 |
| Ixil-ixilik | 90 |
| Begi zoragarrienak | 92 |
| Arrats-apalean | 94 |
| Aizkora-otsak | 95 |
| Il naitenean | 96 |
| Azken-agurra | 98 |

IZTEGITXOA

Aberri: pueblo de los antepasados, patria.

aipatu, aitatu: mencionar.

aizebaltz: vendabal, viento huracanado.

alaka: quejido.

alizar: cometa.

altxor: tesoro.

Anboio: aitzia Arratzola'n (B.).

artega: inquieto.

artizar: lucero (izarra).

artzaiñora: perro de pastor, mastín.

atari, atadi: portal, atrio, pórtico.

autu: escoger.

azkon: flecha, dardo.

baga, bage, gabe: sin.

bako: bagako'ren laburpena Bizkaia'n, gabeko (G.): sin.

bait-, con verbo conjugado: pues, puesto que; baita (bait-da=da-ta): pues es. Distinto a la conjunción conjuntiva **bai...n** (como si): bai'nentorren (como si yo viniera).

barik: bagarik'en laburpena Bizkaian, бага, gabe: sin.

barne: barru (dentro, interior).

be: bere'ren laburpena Bizkaia'n, ere (G.): también.

BITARGI: ratos de serenidad en días lluviosos.

dakusku: lo vemos.

dargist: me lo ilumina.

edontzi: copa (de beber).

egiñen: obra, acción, quehacer.

Elizburu: Elorrio'ko Eliz-osteko tokia, kalea ta etxea.

enbor: tronco.
eratsi: derribar.
eresi: melodía.
ezkilla, gau-ezkillá: campana del anochecer.
ezpai: duda.
ezien: aguijón, punta afilada de una lanza, dardo, etc.
garai, garai-otsak: voces de victoria.
gabe, bage: sin.
galdatu: soldar, fundir.
geisoik: geisorik'en laburpena.
geznari, bake-geznariok: mensajeros de paz.
gogoko: predilecto, preferido.
gori: incandescente, hecho ascua, abrasado.
intz: rocío, relente.
iruntz: rocío, relente.
its: triste.
itz: palabra.
izpi: rayo de luz.
jesan: tomar prestado.
kardatx: copa de los árboles.
larrak: los pastizales.
lats: arroyo, riachuelo.
lei: deseo, ansia, afán, apasionamiento, emulación.
Leiz: Elorrio'ko auzoa.
ler: pino.
lerdoi: pinar.
lilluratu: enamorarse, fascinar, seducir, encantar.
mara-mara: voz onomatopéyica que significa movimiento suave y continuado.
Memaiá edo Memaria: mendia Elorrio'n (B.).
minbera: sensible.
mintzo: palabra, conversación.
motots, kopeta: trenza de pelo.
muin: médula, interior, tuétano.

murgildu: sumergirse, zambullir.
odei: nube.
oiñetxe: casa solar.
omen: honor homenaje.
oro: todo, todos.
oroí, oroitu: gogoratu, gomutatu: recordar, acordarse.
ortze, ortzi: cielo atmosférico.
ote: ete (B.); adverbio de duda: si...
ozkarbi: cielo sereno, despejado.
oztin: azul celeste.
pizkunde: renacimiento.
sargori: bochorno, tiempo bochornoso.
sugar: llama, hoguera, incendio.
sugarri: combustible, incentivo.
talde: grupo, coro.
zidor: vereda.
"Zuri": gure txakurraren izena.
zuzi: antorcha.

Sei dira agots-bikoak (diptongos) neurtitzetan izkin-zenbaketa egiteko: **ai, au, ei, eu, oi, ui**; naiz-ta itz baten amaian eta bestearen asieran izan. Gaiñera,

a-a = a oguzten da, izkin (silaba) bat egiñik;

e-e = e " " " " " "

i-i = i " " " " " "

o-o = o " " " " " "

u-u = u " " " " " "

au-u ta a-au: au oguzten da, izkin (silaba) bat egiñik

eu-u ta e-eu: eu " " " " " "

ai-i ta a-ai: ai " " " " " "

ei-i ta e-ei: ei " " " " " "

oi-i ta o-oi: oi " " " " " "

ui-i ta u-ui: ui " " " " " "

Beraz, o-a, izkin bi dira; esate baterako: "goazan" itzak, iru izkin ditu: go-a-zan.

* * *

Ez dot mingorrik edo azentorik onartzen: emen onetara dana, an bestetara da-ta.

NIRE ESKARRONIK GARTSUENA

Ameriketa'ko

nire adiskide ta laguntzailleai,

ta batez bere

Ibinagabeitia'tar Andima'ri, Caracas'en,

Belztegi' tar Jon'i, Mexico'n,

Iruxo'tar Ander Mirena'ri, Buenos Aires'en,

eta

Llodio'tar Joseba Andoni'ri, Temperley'n

1960'gko.
Otsaillean
amaitu zan
«Gráficas Izarra»
irarkolan
DONOSTIA

EGILLEAREN BESTE ZERBAIT

ORBELAK

(1958'garren urtean argitaratutako olerkiak; Izadikoak, Maitezkoak eta Biozkadak).

ARGITARATZEKO ASMOTAN

UDAZKEN

(Olerki eginbarriak).

EUSKALERRIA

(Itz-lauz). — Abizenen oiñetxeak; aitorsemetasun-agiriak (pruebas de hidalguía), non eta noiz; abizenen esanai edo biurpena; abizen bakoitzaren ikurdi edo mazmarroa (escudo de armas)... Amar milla abizen inguru.

IÑAZIO DEUNAREN GOGO-JARDUNAK (Ejertzioak).